

308/2025 EBAZPENA, otsailaren 12koa, Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Bilbo-Basurtuko ESiko Infektologia Pediatrikoko Atal Sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den

### AURREKARIAK

Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari gerentearen azaroaren 13ko 2605/2024 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Bilbo-Basurtuko ESiko Infektologia Pediatrikoko Atal Sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2025eko urtarrilaren 14ko EHAA 8 zk. eta 2025eko urtarrilaren 20ko BOE 17 zk.).

Deialdian aurreikusitakoaren arabera, Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2025eko otsailaren 10ean amaitu zen.

### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Bilbo-Basurtuko ESiko Infektologia Pediatrikoko Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Bilbo-Basurtu ESiko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Bilbon, 2025eko otsailaren 12a.

Bilbo-Basurtu ESiko zuzendari gerentea,  
JESÚS MARÍA LARRAÑAGA GARITANO



**ZUZENDARI GERENTE  
DIRECTOR GERENTE**  
Izpt/Fdo.: Jesús Larrañaga Garitano

**I. ERANSKINA**

**INFEKTOLOGIA PEDIATRIKOKO ATAL SANITARIOKO BURUA IZENEKO LANPOSTUA**

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- Joseba Iñaki Rementería Radigales jauna.

Baztertuak:

- Inor ez.